

EUSKAL LIGA. Ostegunean aurkeztuko dute Euskal Liga, eta larunbatean jokatu da lehen estropada, Plentzian

Sailkatzeko estropadek ez dute ekarri ezustekorik

Astillero, Pasai Donibane, Urdaibai, Orio, Hondarribia, Isuntza, Castro eta Santurtzi lehiatuko dira A mailako estropada denetan

Ramon Basaldua | BILBO

Ezustekorik gabe jokatu da aurtengo Euskal Ligarako sailkatzeko estropada. Bi jardunaldiak jokatu, kiniela guztietan agertzen ziren zortzi traineruek erdietsi dute A mailako estropadetan parte hartzeko txartela. Astillero, Pasai Donibane, Urdaibai, Orio, Hondarribia, Isuntza, Castro eta Santurtzi izango dira Ligako protagonista nagusiak. Iazkoarekin alderatuz, aldaketa bakarra dago: Astillerok beteko du Zumaia-Getariaren lekua.

Elantxobe-Arkote, Zumaia, Donostia-Arraun-Santiagotarrak eta Pasai San Pedrok A mailako zortzi estropada egiteko aukera izango dute. Ondarroa, Pedreña, Ur Kirolak eta Trintxerpe A mailako lau estropadatan izango dira. Traineru hauek asteazkenean aukeratu dute A mailako zein estropadatan parte hartuko duten, eta ostegunean aurkeztuko dute Euskal Liga, Donostian.

ASTILLERO. Sailkatzeko estropada bietan ikusitakoaren arabera, ezin da atera ondorio sakonik. Astillero erraz gailendu zen larunbateko saioan eta aurretik espero baino alde handiagoa kendu zien aurkariei. Jose Manuel Franciscok koadrila indartsua osatu du eta ondo baino hobeto prestatu du Pasaiako sailkatzekoa. Astillero favoritoen artean dago, baina ezin da aurreratu nagusia denik.

PASAI DONIBANE. Pasai Donibanek ez zuen izan arazorik A mailako estropada guztietarako txartela eskuratzeko. Inork ez daki zer eman dezakeen Pasai Donibaneko arraunlariak bildu dituen traineru honek, baina garbi dago aurtun ere arrosak onenen artean ibiliko direla.

URDAIBAI. Urdaibaik ez zuen larunbatean ona egin larunbatean, baina arazo barik sailkatu zen. Patxi Bilbaok inoiz baino

koadrila indartsuagoa du eta *Bou Bizkaia*-ren helburuak oso aberatsak dira. Gainera, iaz gertatu zitzaiena —indartsu hasi eta hauspo barik amaitu— lezio ona izan da.

ORIO. Oriok bere betiko bideari eusten dio. Aulki mugikorrean guztia irabazi ostean, Altzerriren gizonak lasai ekin diote traineru denboraldiari eta garbi diote euren helburu nagusia Kontxako bandera irabaztea dela. Orio onenen artean egongo da, baina aurtun azken urteetan baino aurkari gehiago eta indartsuagoak izango ditu.

HONDARRIBIA. Hondarribiak gorantz egin nahi du, Mikel Orbanosen eskutik. Ama Guadalupekoa arazo handi barik sailkatu zen larunbatean eta ikus-teko dago noraino irits daitekeen aurtengo denboraldian.

ISUNTZA. Isuntzako arraunlari eta arduradunek sekulako poza hartu zuten larunbatean A mailako estropada guztietarako txartela eskuratzeko. Lekeitio-ko Arraun Taldeak hogeita bost urte bete ditu eta aurtun ere onenen artean egongo da. Pablo Fernandezek koadrila polita dauka eta, itsasoa lagun, ezusteko bat baino gehiago ematen saiatuko dira.

CASTRO. Castron inork ez zuen lorik egin larunbat gauean. *La Marinera*-k huts egin zuen lehenengo jardunaldian eta A mailatik kanpo geratzeko mamua agertu zen Castro aldean. Igandean, oster, Jose Luis Kortak gauzak bere lekuan utzi eta arazo barik sailkatu zen. Castro onenen artean egongo da.

SANTURTZI. Santurtzik urduri ekin zion bigarren jardunaldia-ri, aurrekoan gutxigatik kanpoan geratu ostean. Presioa alde batera utzi eta Sabino Astigarragaren mutilek zortzi onenen artean sartzea lortu zuten. Elantxobe-Arkotek estropada ikara-



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Castro igandeko estropadan lortu zuen Euskal Ligarako sailkatzea.

ZIGORRAK

Araudi betetzea

Euskal Ligarako sailkatzeko estropadak araudi baten arabera jokatzeko dira eta esan beharrik ez dago araudi horretan agertzen diren atal guztiak bete egin behar direla. Kontuak kontu, araudi horren arabera, Pasaiako sailkatzekoan parte hartu zuten ontzi guztiek estropada eremutik kanpo eta urteerako balizaren atzean egon behar zuten estropada hasi baino hamar minutu lehenago. Hala, epaileek hamar segundoko zigorra ipini zioten Elantxobe-Arkoteri, erlojupekoa hasi baino minutu gutxi batzuk lehenago estropada eremuaren barruan zegoelako edo, hobeto esanda, urteerako balizaren atzean ez egoteagatik. Epaileen erabakia zuzena izan zen *Plentzitarra* ontzia beranduegi atera zelako estropada ere-



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Arkote-Elantxobeko trainerua, larunbateko saioan.

mutik (arraun bat apurtu zitzaizen eta aldatzera joan behar izan zuten). Baina kontua da Elantxobe-Arkote ez zela erlojupekoa hasi baino hamar minutu lehenago estropada eremu barruan egon zen traineru bakarra. Santurtziko Itsasoko Ama arraun elkarte-

ko ordezkariak igandeko estropada aurreko batzarrean salatu zuenez, sei bat ontzi zeuden estropada eremu barruan. Garbi dago haiek ere zigorra merezi zutela. Epaileek, oster, Elantxobe-Arkote baino ez zuten zigortu. Araudia guztientzat da.

garri polita bota zuen igandean eta Santurtziren aurretik gertatzeko zorian egon zen. Pedro Mari Abandok koadrila laburra dauka eta pozik daude A mailako zortzi estropada jokatzearrekin.

BESTEAK. Zumaiak ez dauka iazko maila, baina Luxia Olasagastiren mutilak A mailako estropadetan izango dira. Mutil

gazte ugari ari dira *Telmo Deun* ontzian eta txalotzekoa da benetan bertan egiten ari diren lana. San Pedro eta Donostia-Arraun-Santiagotarrak traineruek bete egin dute sailkatzeko estropadarako zuten helburua eta A mailako zortzi estropadetan izango dira. Duela urte gutxi arraunlari eskasia zuen San Pedro, baina sailkatzekoan traineru bi uretaratu ditu, Hon-

darribiarekin batera. Hori da hori harrobiarekin lan egitea.

Ondarroak ez zuen eman bere benetako maila igandeko estropadan eta Tito Manzillaren gizonak aldatu beharko dute denboraldirako txipa. Trintxerpe ez da azken urteetako, eta igandean, estropada txukuna egin arren, ez zuen aurreneko hamabien artean sartzerik izan.